


Antartikako lakua

Antartikako izotzaren azpian, sakonera handian, laku ikaragarria dago. Oso laku erakargarria da zientzilarientzat, orain dela milioi bat urteko bizidunen formak egon daitezkeelako. Orain dela hogeitun urte ohartu ziren han lakua egon zitekeela, gainetik igaro zen hegazkin batek radarreko oihartzun berezia jaso zuelako.

ERSI satelite europarrak bidalitako irudiei esker, Cambridgeko unibertsitateko Gordon Robin eta bere taldeak zehatz-mehatz jakin ahal izan dute lakua non dagoen. 14.000 mila kilometro karratu ditu eta 4.000 metroko sakonera dago; Vostok izeneko zulaketa-estazio zientifikoaren azpian, hain zuzen. Ondorioz, zientzilariek zulaketak


Antartikako izotzaren azpian laku ikaragarria dago. Orain dela milioi bat urte gero isolatuta egon diren mikroorganismoak bizirik aurkituko dituztela uste dute biologoek.



bertan behera utzi dituzte, bestela lakua poluitu egingo dutelako. Zulaketa-teknika "estankoa" prestatu arte utzi dituzte lanak. Biologoek sedimentuetan orain dela milioi bat urte gero isolatuta egon diren mikroorganismoak bizirik aurkitzea espero dute. Hipotesi hori betetzea oso litekeena da, zeren eta bakterio batzuk oso egoera latzetan milaka urtetan irauteko gai baitira.

Armiarra bere kumeak jaten

Israelgo Ben Gurion unibertsitateko Jutta Schneider zientzilaria-
ren lanak erakusten duenez, umeak hiltzea ez da ugaztun eta hegaztien kontua bakarrik. Izan ere, Negev-eko basamortuan bizi den *Stegodyfus lineatus* izeneko armiarra arrak bere kumeak hil egiten ditu. Bere seme-alabak hiltzeko arrazoia oso sinplea da. Armiarra emeak kumeak dituen arrak



Stegodyfus lineatus armiarra arrak bere kumeak jan egiten dituela ohartarazi dira biologoak. Emearren interesa berreskuratzeko teknika xeblea da, dudarik gabe.

ri ez dio jaramonik egiten eta alde batera uzten du. Armiarra arrak bere kumeak jaten dituen ordea, emeak kume gehiago egin nahi izaten du eta arrarengana hurbiltzen da.

Sukaldeko olioia automobilentzat

Japonian sukaldean frijitzeko urtean bi milioi tona olio erabiltzen dute. 250.000 tona birziklatu egiten dira, baina gainerako 1,75 milioi tona ibaira eta abarretara botatzen dira.

Someya Shoten izeneko sozietateak frijitzen erabilitako olioia transformatu eta diesel motoretarako erregai bihurtu du. Erregai honen gasolioarekin konparatuta badu abantailarik. Izan ere, ihes-tututik kea bi heren gutxiago botatzen du eta anhidrido sulfurosorik ez da sortzen.

Bananondoaren genetika

Oso ikertzaile gutxi arduratu izan da bananondoaren genetikaz, nahiz eta garapen bidean di-



ren herrialdeetako funtsezko elikagaia izan. Europako zientzilaritalde bat ordea, horretan hasi da lanean eta mapa genetiko partzial bati esker, irizpide fisiologiko eta agronomikoetatik aparte sailkapena egin daiteke.

Bananondoa makatza denean, material genetikoko diploidea du (kro-



mosoma-kopurua bikoi-tza). Landutako bananondoek ordea, denboran zehar beste kromosoma batzuk gehitu dituzte. Ezaugarri honek fruituari zapore hobea ematen dio, baina antzu bihurtzen da. Horregatik ikerketaren helburuetako bat landutako bananondoan arbaso diploideak aurkitzea eta hortik abiatuta, hobekuntza genetikoari ekitea izango da.

Sugeen oxigeno-botila

Berrogeita hamar bat suge-espeziedaude Ozeano Baren eta Ozeano Indikoko ur tropikaletan. Arnasa hartzera urazalera etorri behar izaten dute, baina hogeita hamar metroko sakoneraraino ere jais ten dira elikagai bila. Birika bakarra dute arnasa hartzeko, baina, nolabait esan, gorputzaren hiru laurdenak hartzen dituen "oxigeno-botila" edo zakua dute; aire-erreserba, alegia. Biri-karen luzapen gisa dago eta horma lodi eta sendoak ditu. Oxigeno-ponparen antzera lan

Arnasa hartzera urazalera etorri behar badu ere, argazkiko sugeak bi ordu baino gehiago eman ditzake urpean. Gorputzaren hiru laurdenak hartzen dituen aire-erretserbari esker bizi daiteke honela.



egiten du eta premien arabera injektatzen du airea. Horrela sugeak gutxienez bi ordutan egon daitezke urpean, baina ikertzaile batzuek diotenez, zortzi orduz ere egon daitezke.

Hipopotamoaren aerodinamika

Animalia handi honen izen zientifikoa *Hippopotamus amphibius* da eta ibaitako zaldia dela esan daiteke. Uretan babes ten du bere azal leuna eguzkitik eta uretan babesten du bere burua piztien erasoetatik. Hipopotamo heldua bost minutuz egon daiteke urpean hamar metroko sakoneran, baina interesgarriena urpean ibiltzeko duen trebetasuna da. 20 km/h-ko abiadura lor dezake, nahiz eta urak eskainitako erresistentzia handia izan. Adituek diotenez, bere gorputzaren forma aerodinamikoari esker korrika doanean lurraren kontra mantentzen da eta ez du gora egiten. Gauza beretsua gertatzen zaie I formulako



Ibaitako zaldia dela esan daiteke. Animalia handia da oso, baina oso ongi moldatzen da urpean. Hipopotamoak 20 km/h-ko abiadura lor dezake bertan, uraren erresistentzia oso handia bada ere.

bolidoei ere. Hipopotamoak duen mutur inklinatuak, bolidoetan atzeko aleroiak bezalatsu jokatuko luke. Horrez gain hipopotamoak hanka motzak ditu eta grabitzaio-zentroa oso behean du. Horregatik urpean 10 km/h-ko abiaduraz doanean lurrerantz 230 kiloko indarra du eta 45 zaldiko potentzia dauka. 20 km/h-ko abiaduraz doanean berriz, potentzia 365 zaldikoa da eta lurreranzko bultzada 920 kilokoa.

Arbolazaintza eta biodibertsitatea

Arbolazaintzak lagun diezaioke ingurugiroaren kontserbazioari. Sumatrako irlan damar izeneko arbolak landatu dituzte industriadako oso baliotsua den erretxina sortzen duelako eta Hubert de Foresta ikertzaileak egindako lanek frogatzen dute-

nez, bertan biodibertsitate izugarria dago. 100-150 landare-mota desberdin hazten da damardian, eta irlako berezko oihanean, 250 landare-mota. Hala eta



Arbolazaintzak mesede handia egin diezaioke kontserbazioari. Sumatran frogatu dutenez, esate baterako, damar izeneko arbolak landa daitezke industrialki ustiatzeko.

gutziz ere, gaur egun industrialki ustiatzeko inguruan gehienez hamar espezie desberdin onartzen dituzten olio-palmondoa edo arkazia aldatzea damarra aldatzea baino nahiago dute.

